

# Maitasunean eta elkarrizketan oinarritutako etxea

Zenbat buruaste gure etxeetan! Zenbat bihotz-urratu! Zenbat negar maliko isil eta min! Izan ere nola aldatu diran gauzak Lehendik zer alde dagoen!

"Nere semeak ez du igandetan mezetara joan nahi". "Nere alabak erri ezkontza egin du. Ez du Elizaz ezkontzerik nahi izan". "Ikastetxetik etxera bidali didate semea orri iraultzaile batzuk zabalzteagatik".

Etxe guzietan dago zerbaite. Baita onetan ere. Zenbat gaztetxo, ez denak, noski, elizara joateari utzita, sinuemeneko dudamudetan, arriskuzko langintzetan, orain arte aipatu ere ezin zitezkeen gauza ezkutuak nabarmen eginaz.

Gurasoak ikara-larri, elkarki galdezka, elkarki aitzakiak botatzen. "Ez dugu ondo ezi. Ez dugu ahaletzerik egin. Zuk duzu errua".

Zer gertatzen da? Egia eto? Familia ez da guk uste dugun etxe itxi ori. Seme-alabak arrisku guztietatik gordeko dituzten istura bat. Ez da seme-alabak gurasoen eraginia bakarrik artzen duten esparru bat. Gurasoek dena zaitzen eta neurtzen duten ordeka bat.

Autsi dira kartzelako sarraillak. Munduko gora behera guziak etxe barruraino sartzen dira. Etxea zirikiztu bete da. Itxituririk gabeko zelai zabalean egurastan dira seme-alabak. Ez dago seme-alabak laguntzerik, jolasik, libururik eta ibillerarik zatzerik lehen bezala. Edonork jaso dezake gaurko umeengandik erantzun txar bat...

Zer egin ekaitzari ihes egiteko? Ez da arresia etxe-jiran jarri behar familia salbatzeko eta babesteko, etxeko bizilagun bakoitzaren barruan baizik. Bakoitzaren eginkizun eta arremnatan oinarritu behar da familia: aita edo ama edo ume edo senide izatetik sortzen diran eginkizun eta arremnatan, alegia.

Gurasoen maitasuna da guztien abia. Maitasun ori da denak korapilatzen dituen txibista. Ortik dator etxeko guzizagana babesa eta elkartasuna. Gurasoen maitasun ortantxe nabariko dute seme-alabek, aurrena senaz eta gero ezagueraz, maitatuak, onartuak eta errespetatuak direla. Gurasoen maitasun ezagatik dotoz pitatu eta ondorez asko seme-alabatar. Gurasoek ondo berotzen duten abian ez da amerikaltzen.

Orduan bai agindu dezaketela beren seme-alabengan gurasoek. Izan ere zer da gurasoen aginidea? Zertarako da? Seme-alabak beren buruen jaun eta jabe izan ditezten laguntzeko, noski. Gizon eta emakume askeak izatera iritzi ditezten, noski. Aginidea seme-alabaren zerbaitzuen dagoen maitasuna besterik ez da. Eta nola maitate seme-alabak elkar maitate ez duten gurasoek?

Maitasunaz gainera, etengabeko elkarrizketa jatorra eskatzen du Familiak: senar-emazteen, guraso eta seme-alaben, emazteen, lagun eta irakasleen artean. Giro onek sortzen du irekitasuna eta erantzunkizuna denen artean. Elkarrizketak eta asmoak trukatuta. Aginidea, elkarrizketa ori gabe, bestea zapaltzeko bestetarako ez da.

Baiañ elkarrizketa ori seme-alaben erruz sortzen ez bada? Ikus dezatela eman zaien agindua beren onerako eta beren askatasunerako eman zaitela eta elkarrizketa, berak moztua izan dela. Ikus dezatela, gurasoek beharturik, beste biderik ez zegoelako, egin dutela ori. Jakin dezatela umeek ere estualdien, premien, ezinien eta nekeen herri.

Elkarrizketan ondo ustaturik joan behar dute seme-alaben ezizun: maitasunak, elkarrizketak eta derrigorrik. Elkarrizketaren bidez erabiltzen dan aginidea, gehienetan. Maitasunean oinarritzen dan derrigorrezko agindua, noizbehinka. Maitasunik edo elkarrizketarik gabeko derrigorrezko agindurik behin ere ez.

# GIZONAZ SUDURRA

Arpegi erdi erdian, goitik behera konkor luzaska bat: sudurra.

Gizon beltzak sudur beltza du, zuria zuria, horia horiak. Hala ere ez dezagula penisa gero sudurra «txaketera» danik!  
Zertarako dugu?

Sudurrik gabeko arpegiaren hutsune haundia arkituko lukeke gure begiek: «arpegi hori ez da bete bete» esango genduke.

Baiañ sudurra ez da apaingarri bat bakarrik; bere eginbeharrak ditu:  
—Arnasa beharrezkoa zaigu eta sudurretik hartzen dugu.  
—Usai egin behar dugu eta sudurrean dugu hortarako aparatua, usnikina.

Kanpotik ikusi ez arren, sudur barrunean egintza bizia ari da beti. Sudur bakoitzak bi zulo ditu: hoietatik sartzen da arnasean hartzen dugun haize bizigarria. Ditu-gunik ere ez gera konturatzan itxita dauzkagun arte; orduan bai, eta ito ez gaitzen ahoa zabalitzen dugu eta lo gaudenean zurrunkak egiten.

Sudurra zulo hauen teillatua da; botako du nahi dugun euri zaparrada... ez zaigu urik sartuko biriketara.

Ohitura txarrekoa da txingarra edo beste edozein hatzamarrekin sudur zuloak zirikitzea.  
Gizon batzuek ez dute usantzen. Hobe? Batzuetan bai. Baiañ sudurrraren akatsa da hori, usai egitea ere bere eginbeharrakoa da-eta. Baita negoziok urrutitasko usantzen dituzten gizonak ere badira: ez da horrelako txakurrik!  
Negan sudur morea duenak zenbat alkool edan ote du bere bizitzan?

Arnasa hartzeko eta usai egiteko.

Hortarako sudur luzeak hobeak izango dira noski! Ez ba. Zapalak, motxak eta luzeak beren artean gorabehera haundirik ez darabiltzite. Denak berdiñak balira, sudurrak ez lioke emango gizonari orain ematen dion norberitasun kutsu hori; askotza, barietadeta ere beharrezkoa da eta atsegingarria gainera. Baiañ japonarrak beren sudur motxekin, beltzak zapala dutela eta euskaldunak luzeagoarekin, ia berdin usantzen dugu: txakurrak baiño gutxiago eta otsoak baiño gehiago.

Gizon azkarrek sudur ederrekoak ditrela entzun izan dugu. Badaiteke hala izatea. Lehen esandako bi helburuak eta besteren bat betetzeko ote ditu ba sudurrak? Daitekeena da.

Haundia dela edo txikia dela, ha-maika esaera eta kontu sortu ditu gizonak sudurrari buruz. Hara ipui zahar bat:

Zortzi urte ezkongai igaro ondoren, mutillak neskari agur esanahi zion, baiña, jakiña, ez omen zan ausartzan.

Orduan neskaren aitagana jo zuan eta bere asmoa nola-hala adierazi zion. Gizonak galdetu zion: —Baiañ zer gertatu zaik erabaki hau hartzeko?

—Izan ere, erantzun zion gazteak zer esan asmatu eziniñ, zure alabak falta bat du.

—Ze falta?  
—Sudurra haundiegia!  
—Hori ez duk falta, mutil, hori «sobra» duk!  
Ipuiak ipui, kontuak kontu, bakoitzak sudur bana dugu.

ALKORTA

# BADA GARAIA

Apirilaren haseraz geroztik Viet-Nam-dikako berriak nagusitu dira berriro aldizkariaren lehenengo orrialdeez. Odolaren eta deldardarren sarri-errek lakzaria oraindik, Viet-Nam-dikako berriak lortu dute mundua berretaz oroitzea. Bonbaketak inoiz baino urrunago joan bide dira dinamita-ketaz eta zigor-geheduraz: 850 hegazkin-mordo Iparalderara atzo joanak!

Gizona edozein egoeratan ohitzen omen da. Eta Viet-Nam-go kasoa hau gauza nabarmena da [Gauza bere gertatzen ari zaigu Ulster-i buruz]. Alegia: nahiz hango egoera benetan izugarria izan, ohitu gara; eta zuzenbideak han zer eskatuko ote lukean ez dute batzuek garbi ikusten. Areago: zenbaitek (gutxiñik nik uste) komunisten jokoan egin bildurrez, hilkitzak eta bonbaketak gora joatean txalo jotzen du!

Pozoiaketa nagusitu da gutzaz, beraz. «Intoxication», alegia.

Pozoiaketa-kasu horietan, oso ona izaten da, ene uste, problema izuletarra jartzea. Zenbait korapilo askatzeko, oso jakobide argi-emeak izaten zait hau; eta oso gogoko dut nik bederen.

Washington-ek, Nixonek esan berri duenez, ez du inolaz ere onartzen hartuko Viet-Nam-en komunistak nagusitzeko. Bego.

Irakurleak dakikeanez, Itali-barruan dagoen erresuma askatu tiki-tiki bat da San Marino. Eta San Marino, jakina denez, komunistak diru nagusi. San Marino-ko gobernu-beraz, Viet-Kongen alde egoete normala da. Nixonek eskubiderik baldin bado komunistak nagusitzera «inolaz ere ez uzbeko», San-Marino-ek berak (zerzagatik ez?) gauzak bestaldera «inolaz ere» ez onartuko. Zer falta du? Indarra. Nixon-en jakabidea onartzea, beraz, indarraren nagusikeria onartzea da; eta fazismo-motako guztien karkoa onartzea.

Goazen aurrera, ordea. URSS-ek indarra badu.

Eman dezagun, beraz, URSS-ek, Hanoi-ko gobernuaren egokitasunaz sinetsirik, eta beti ere Washington-eko jakobide berbera harturik (alegia: maite ez dituen joerako gobernuak «inolaz ere» nagusitzera ez uzbeko) Ipar-Viet-Nam-era «kontseilari militarrik» bidaltzen hasten dela: 500.000 «marines»; eta URSS-en VII Armada, hegazpinak eta guzti, hara agertzen dela; eta egunero, 850 hegazkin-mordo bidaltzen dituela bonbaka Saigon-a. Zer esango genduke?

Eman dezagun orain, beste alde batetik arazoa aztertzeko, Viet-Nam-darrak lehorrera direla Kalifornia-ko itsasertzean: beste 500.000 «marines» hain zuzen, Amerikatarrek memento batez izan zituzten hainbat; eta egunero, Washington-en «burgesak» nagusi ez dituzten, 850 hegazkin-bonbaketak egiten dituztela egunero Chicago, Cincinnati, New York, Miami, Filadelfia eta abar suntsituz. Eta horrela urtetan barrena, eta 1995era arte gutxienez. Zer pentsatzuko genduke?

Oraindik ere beste argibide bat. Eman dezagun Maok ezin dezakela jasan Mexikoko gobernu «burgesa»; eta, Nixonen bideari jarraituz, Mexikon 500.000 «marines» lehorrera dituela, eta Txinako VII Armada jaun-da-jabe dabilela Mexikoko kolokan, bazterrak «baketez»; baita Cuernavaca, Guadalupe, Mexiko, Acapulco, eta abar, egunero bonbaka xehatzen. Zer esango genduke?

Erantzuna ez litzake zalantzakoa izango: inperialismo-ekintza ikaragarri horiek arraz gaitzetsi beharra dago, azterritar okupazio horiek atzera behar dira egin. Hitz batez: kanpora okupatzaileak! esango luke denek. Eta gero, gerokoak.

Zergatik ez, hortaz, gaurko gudu ikaragarri eta ezin bidegabeko horretaz? Komunistak nagusitzeko di-

rela esateak ez du ezer garbitzen, komunistak ez diren hauek edo haiek nagusitzeko direla esateak garbituko ez lukean bezala. Alde batetik, ez da inolaz ere gauza segurua Ipar-Viet-Nam-go herriak gaur Hanoi-ko gobernuaz zinez eta bihotzez maite ez duenik. Eta bestetik herri txikiak ez baduet beren buruz beren etorkizuna hautatzeko eskubiderik, onartua dugu, besterik gabe, iohaneke legea; eta, atsoitza-ri jarraituz, arrain txikiak handien janari izateak beste etorkizunik ez dute.

Hitz ederrak ez dira falta. Hori badaiki. Betei aurkitu izan dituzte indartsuek hitz anpurusak eta aitzeki sakraturak beren sarraskiaz zuzenesteko. Ameriketako kolonizazioa «indioen arrimalk salbatzeko» burutu omen zen; 1968an «sozialismoa salbatzekotan» sartu omen ziren Pragara atzerritar armadak; orain eskuindarrek dioteenez, Viet-Namdar «gizajoak» komunismoaren atzapar ikaragarrietatik begiratzekotan sartu omen dira hara amerikatarrik; Biafrako gerozidioa «Afrika batuaren zerbizutan» osatu omen zen; eta Erromatarrek, orain dela hogeitau mende, «herri bak barbaroeriatik ateratzeko», omen, menperatu zituzten Europako herri guztiak.

Ala inperialismo guztiak gaitzesten dira; ala zeta abalzik uzten zaie kolore guztietako zapalkuntzei. Ala Viet-Nam-go gudua osoki kondentatzen da eta, beraz, gero zer gerta ere, amerikatarren aldegiera eskatzen; ala Praga, Biafra, Budapest, Ulster, eta irakurleak dakizkien gainerakoak, onartu beharra dago. Ateka hertsia baita, benetan.

Zalantzarik gabe, beraz, guk ere «USA, go home» famatua esaten dugu. Viet-Nam-go herri zortizarrekoak hogei-ta-hamar urte honetan oraindu duen odol-saria aski eta sobra ere baita.

LARRESORO

# BARTZELONA ASPERTUA

BAI, asperturik dago Bartzelona. Izki aundietan irakurri ahal izan dute. Bostheun etxe itxi arazi ditu Gobernuak egunotan.

Tankera eta elburu berdintsuko etxeak ziran gainera agiriaren oharrez adierazten zaigunaz. Tabernak, gau-biltokiak, kafetერიak eta abar.

Orregatik diot Bartzelona asperturik eta ilda dagoela. Ez da berriketa egun gutxiaren barruan onelako bostheun leku istea.

Baiañ gehiena arritzen nauena ez da onelako bostheun leku istea, itxi ditezkeen orrenbeste leku egoteak baizik. Ez dut uste zabaldu ziran egunetik itxi beharrekoak izango zirenik. Baiañ batpatean isteak auxe esan nahi du: «zaitu» gabe zuek. Zer behartu du itxiaraztea? Diru-ostutzeak, neska-lapurretak, droga-saltzeak eta onelako oker aundiak behartu dute itxiaraztera.

Baiañ eldu dezaiozun zezenari adarretatik. Murgildu gaitzen arazoetan barruan. Sar gaiten gogotea sakonean.

Ez dago urrutira joan beharrik onelako dantzetegi, jolastegi eta gau-txoriztarako lekuak ugaltzen ari direla jakiteko. Ez dut guzti onen aurka ezertxo ere. Garai bakoitzak bere jolaskerak ditu eta ez dute urte orregatik gaurko gazteak lehengoak baiño okerragoak direnik. Aski da lehenago gazteen ibilleren berri jakitea.

Lehen ez genduen diru-bide berri

baten aurrean gaude. Eta ori dela eta batek baiño gehiago arkitu dute lantegia. Eta eskuratu da, agian, erbeste-errietako diru gizen eta ezea ere.

Zalantzarik ez dago, nuke baime-naren jabe beharko auzo autogintzarako lantoki bat eraikitzeke. Baiañ lehendik bazter guztiak aseak badaude, ukatu egingo ditute baime-na. Diru-etxeak berak izango dira aurrena diru-ukatu didatenak. Eta autogintzarakoak bezalaxe, berdin, gertatuko litzaidake beste edozer langintzarakoak ere. Ez diruaren laguntzarik eta ez legearen baimenik eskuratu nuke. Eta arazo osoz. Alferrik egitea da aska, iturri agortuaren aurrean. Kaltetarako sortzea diru-bide eta etekiñik gabeko lantokia.

Baiañ gero eta diru gehiago ixurtzen duen iturria izan behar du jolasgintzak. Ez du agortzeko itxurarik eduki behar. Diru-poltsa erraz betetzen duen iturria izan behar du. Baiañ ortan sartu dan dirutzan pentsatzen asten danean gauzak asko arretzen eta nahasten dira.

Eziñezko ugalmena, noski, diru-laguntzarik gabe. Nork bere dirutik eraiki dezake bat edo beste. Orrenbeste, ordea, eziñezkoa da iñongo diru-laguntzarik gabe. Zalantzarik gabe dirudunen edo diru-uste orregatik gaurko gazteak lehengoak baiño okerragoak direnik. Aski da lehenago gazteen ibilleren berri jakitea.

Agian ez ditek gaitzetsi jokabide au besterik gabe. Baiañ onartu al ditek etxagintzarako, eskolatarako, autobideetarako eta ain-

beste gauzatarako diru premia dagoen lurraldean?

Baiañ zenbaiten lotsarik ezak arritzen nau gehien. Leku oiegi guztietan bizia ematen dien gazteei botatzen zaie errua. Gazteek ari omen dira ohitura on guztiak galtzen. Erru aundiagoa du, noski, ortarako erraztasunak eta dirua ematen duenak.

Erantzun beharko dute gazteek beren jakabideez. Ez dute erantzunkizun ariñagoa, ordea, ortarako bideak jarri dituztenak. Umeak zer dakite, bada? Ala erakusi izan zaigu, umeak ikus dezaketen tokian ez uzbeko ezer, ondo gordetzeko baizik.

Artadi

## ARGIA

**Zuzendaria:**  
**MIREN JONE AZURZA ARISTEGIETA**

Nafarroa-Kantauri eta Aragoiko Kaputxinoak argitaratua (Kale Nagusia, 50-1.º Burlada-Pamplona).  
Donostia: Okendo, 22  
Tel. 42 66 66

**ARPIDE SARIA:**

Berruan	300 pezeta
Korroko batasunetako errietan	350 pezeta
Atzerietako beste errietan	370 pezeta
Aidez	Aurrez gaidetu

**Safmetan (ale bakoitza)** 7 pezeta